



Puri-purian dagoen kontuaren inguruan – gatazka kolektiboak alegia, argibide batzuk eman dizkizugulako:

- Uztailaren 7tik aurrera ezarri nahi dizkiguten tauletan lansari murrizketa berriak kontenplutzen dira urteko osagarria desagertzen delako. Honek eragin txikia du irakasleen kasuan (155, 67 € gutxiago Haur eta lehen Hezkuntzan, 165,16 € gutxiago DBH 1ean, 180,93 DBH 2an eta Batxilergoan, 72,37 zikloetan) baina izugarria da Haur Hezkuntzako Lehen zikloko Teknikoetan (TEJI), 800 € gutxiago kobratuko dutelako. Horrela aurreko murrizketari berria gehituko zaio, guztira % 8 gutxiago. Eta hau gutxien kobratzen direnak izanik!
- Sartuko dugun enpresa mailako gatazka kolektiboaren demanda bakarrik lansarien taulen inguruko erreklamazioak babesten ditu. Norbaiti lansariez gain bestelako aldaketaren berri ematen badiote,- 58 urte izateagatik lanaldi murrizkea kendu, ordutegi lektibo gehiago eta besteren bat, jakinarazi behar digu norbanako demanda sartu behar da eta.
- Komunikazioa ahozkoa bada, jakitera eman behar digu. Horretarako idazki baten bidez adierazi behar digu zein aldaketa mota komunikatu dioten ahoz.
- **Ordezkarri sindikal edo komitekidea izanez gero :**
 - o adierazi behar diguzu ikastetxeak aldaketaren berri eman dizun ordezkari edo komitekide gisa. Komunikazio hori sinatu baduzu bidali kopia bat.
 - o Ez badizu komunikazioa ofizialik egin, esaiguzu ere e-mail baten bidez ez dizuela aldaketaren berri eman, hau ere garrantzitsua delako.